FEDERACIÓN ESPAÑOLA
DE ASOCIACIONES NAGUSILAN

# nagusilan

ADIN NAGUSIKOEN
GIZA BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO SOCIAL
DE MAYORES

F.P.
Publicorreo
ÓPTIMO

BOLETÍN DE NAGUSILAN

Número 152 • JUNIO 2021
Depósito legal D.L./L.G. SS-1120/01



# El 18 de mayo se celebró la Asamblea General Ordinaria de Nagusilan

# *Maiatzaren 18an Nagusilanen Ohiko Batzar Nagusia ospatu zen*

Excelente respuesta y amplia participación en el programa formativo de Nagusilan Ikasten / *Erantzun bikaina eta parte-hartze zabala Nagusilan Ikasten prestakuntza-programan*
pág. 4-5

En marcha la nueva y reforzada delegación de Nagusilan Vitoria-Gasteiz / *Abian da Gasteizko Nagusilanen ordezkaritza berri eta indartua*
pág. 17

Se reactiva la actividad del grupo de acompañamiento en domicilios de Donostia / *Donostiako etxebizitzetan laguntza eskaintzen duen taldearen jarduera berraktibatu da*
pág. 18-19







**FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES NAGUSILAN**
**Tel.: 943 47 50 21**
Resurrección M.ª de Azkue, 32 behea
20018 Donostia-San Sebastián
e-mail: info@nagusilan.org
**www.nagusilan.org**
@nagusilan

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE SANIDAD, CONSUMO Y BIENESTAR SOCIAL
SECRETARÍA DE ESTADO DE SERVICIOS SOCIALES
IMSERSO




# El 18 de mayo se celebró la Asamblea General Ordinaria de Nagusilan

## Por primera vez, las personas voluntarias que no pudieron asistir tuvieron la ocasión de seguirla vía streaming

El 18 de mayo se celebró la Asamblea General Ordinaria de Nagusilan en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián y dio comienzo a las 16:30 horas, en segunda convocatoria. Debido a la situación de emergencia socio-sanitaria actual y a fin de garantizar las medidas de seguridad correspondientes, asistieron presencialmente 25 personas voluntarias.

En esta ocasión, y por primera vez, las personas voluntarias que no pudieron acudir presencialmente tuvieron la oportunidad de seguir la Asamblea vía streaming. Un total de 26 personas se conectaron online y participaron en la Asamblea.

*“Se aprobó la composición de la nueva Junta Directiva”*

Se procedió a la aprobación de las cuentas auditadas del 2020 y se presentó un resumen de la actividad desarrollada en un ejercicio tan atípico como el 2020, valiéndose de la memoria enviada a las Instituciones. Memoria que se puede consultar y descargar a través de la web de Nagusilan **https://nagusilan.org/quienes-somos/**

Por otra parte, se aprobó por unanimidad la composición de la nueva Junta Directiva.

# Maiatzaren 18an Nagusilanen Ohiko Batzar Nagusia ospatu zen

## Lehenengo aldiz, joan ezin izan zuten boluntarioek streaming bidez jarraitu ahal izan zuten


**José Ramón Ecenarro**
PRESIDENTE


**Asun Ugarte**
VICEPRESIDENTA


**Jesús María Guerra**
SECRETARIO


**César Martín**
TESORERO


**Arantza Palacio**
VOCAL


**Consuelo Cid**
VOCAL


**Joaquín Arratibel**
VOCAL


**Maite Jauregui**
VOCAL


**Micaela García**
VOCAL


**Mary Shadowen**
VOCAL

*Maiatzaren 18an Nagusilanen Ohiko Batzar Orokorra egin zen Donostiako Udaleko Osoko Bilkuren Aretoan eta 16:30ean hasi zen bigarren deialdian. Egungo larrialdi soziosanitarioaren ondorioz, eta dagozkion segurtasun-neurriak bermatze aldera, 25 boluntario bertaratu ziren.*

*Oraingo honetan, eta lehen aldiz, bertaratzerik izan ez zuten boluntarioek batzarra streaming bidez jarraitzeko aukera izan zuten. Guztira, 26 lagunek egin zuten bat online eta asanbladan parte hartu zuten.*

*2020ko kontu ikuskatuak onartu ziren, eta 2020ko ekitaldi ezohikoan egindako jarduearen laburpen bat aurkeztu zen, erakundeei bidalitako memoria baliatuta. Nagusilanen webgunean kontsulta eta deskarga daitekeen memoria:* ***https://nagusilan.org/eu/nor-gara/***



*Bestalde, aho batez onartu zen Zuzendaritza Batzorde berriaren osaera.*



*Hace unos meses falleció nuestro compañero Alejandro Morlán, quien durante años fue gerente de Nagusilan. Siempre le recordaremos por el incalculable esfuerzo y labor voluntaria que desarrolló a favor de las personas mayores.*

*Duela hilabete batzuk hil zen Alejandro Morlán gure lankidea, urtetan Nagusilaneko gerentea izan zena. Beti gogoratuko dugu adinekoen alde eskainitako esfortzu eta boluntario lanagatik.*



## Excelente respuesta y amplia participación en el programa formativo de Nagusilan Ikasten

Nagusilan Ikasten, proyecto orientado a la formación de las personas mayores, continúa recogiendo sus frutos. El programa que coordinan Begoña Arrizabalaga y Maria Odriozola ha recibido una respuesta excelente por parte del voluntariado, cuya participación se ha incrementado considerablemente durante este último cuatrimestre, así como una gran respuesta por parte de otras asociaciones. Se constata así el deseo general de seguir formándose, así como de encontrar un lugar para compartir y reflexionar sobre diversos temas que les interesan y les preocupan.

Debido a la situación excepcional que vivimos por la pandemia, hasta el momento las sesiones programadas han sido online. Se han ofrecido sesiones abiertas dirigidas al voluntariado de Nagusilan, así como a todas aquellas personas interesadas en distintas temáticas, que han podido acceder directamente a través de nuestra web:

**https://nagusilan.org/nagusilan-formacion/**

Muchos y variados han sido los temas que se han abordado en las distintas formaciones (ictus, huella física del confinamiento, escucha activa…), pero cabe destacar el interés que han suscitado en particular las sesiones que se englobarían en el denominado pack del "final digno de la vida", conformado por tres sesiones en las que se ahondó en el documento de voluntades anticipadas, los cuidados paliativos y la eutanasia.

## *Erantzun bikaina eta parte-hartze zabala Nagusilan Ikasten prestakuntza-programan*

*Adinekoen prestakuntzara bideratutako Nagusilan Ikasten proiektuak fruituak jasotzen jarraitzen du. Begoña Arrizabalagak eta Maria Odriozolak koordinatzen duten programak erantzun bikaina jaso du boluntarioen aldetik. Boluntarioen parte-hartzea nabarmen handitu da azken lauhileko honetan, eta beste elkarte batzuen aldetik ere erantzun handia izan du. Horrela egiaztatzen da, oro har, prestatzen jarraitzeko nahia, bai eta interesatzen zaizkien eta kezkatzen dituzten hainbat gairi buruz partekatzeko eta hausnartzeko leku bat aurkitzekoa ere.*

*Pandemiagatik bizi dugun ezohiko egoera dela eta, orain arte programatutako saioak online izan dira. Saio irekiak eskaini dira Nagusilaneko boluntarioentzat, bai eta gai desberdinetan interesa duten pertsona guztientzat ere, gure webgunearen bidez zuzenean sartu ahal izan direnak:*

**https://nagusilan.org/eu/nagusilan-ikasten/**

*Asko eta askotarikoak izan dira formazioetan jorratu diren gaiak (iktusa, konfinamenduaren arrasto fisikoa, entzute aktiboa), baina bereziki "bizitzaren amaiera duina" izenekoaren packean sartuko liratekeen saioek piztu duten interesa nabarmendu behar da. Hiru saiotan, zainketa aringarrietan, aurretiazko borondateen dokumentuan eta eutanasian sakondu zen.*

**PRÓXIMAMENTE**
Nagusilan Ikasten trabaja ya en su nueva programación, que retomará después del verano. A lo largo del cuarto trimestre se abordarán temas como técnicas de comunicación con personas mayores, nutrición y ejercicio y técnicas de voz para el voluntariado dedicado a la animación, entre otros.

***LASTER***
*Nagusilan Ikasten programazio berrian lanean ari da dagoeneko. Laugarren hiruhilekoan gai hauek landuko dira, besteak beste: komunikazio-teknikak pertsona nagusiekin, nutrizioa eta ariketa eta ahots-teknikak animazioan aritzen diren boluntarioentzat.*

# *Documento de Voluntades Anticipadas, Cuidados Paliativos y Eutanasia*

El 28 de abril asistimos a una cita en la que pudimos conocer qué es y cómo se elabora el **documento de voluntades anticipadas**, de la mano de Joseba Salgado y Enrique Alamillo, médicos de Osakidetza. Un documento personal en el que se recogen valores y preferencias sobre salud y cuidados a tener en cuenta en la etapa final de la vida.

El 4 de mayo pudimos acercarnos y saber más sobre los **cuidados paliativos**, cuidados tan necesarios y en ocasiones denostados. De la mano de la médico de familia y especialista en cuidados paliativos, Mila Arrieta, conocimos, entre otros, los aportes que las doctoras Cecily Saunders y Elisabeth Kübler-Ross hicieron a esta rama de la medicina.

Unos días más tarde, el 20 de mayo, contamos con una interesante formación en torno a la **eutanasia**, a cargo de Mabel Marijuan, Doctora en Medicina y Profesora de Bioética en la UPV/EHU. Marijuan trató el proceso legislativo previo a la aprobación de la Ley Orgánica de Regulación de la Eutanasia 2021 (LORE), haciendo un recorrido en los derechos de los pacientes al final de su vida, y, en las obligaciones de los profesionales de la medicina hacia sus pacientes durante esta etapa. Asimismo, explicó, tal y como ya lo habían hecho con detalle en una sesión anterior sobre el Documento de Voluntades Anticipadas (DVA) los compañeros Joseba Salgado y Enrique Alamillo, cómo registrar nuestra voluntad libremente para situaciones futuras en las que no podamos expresarnos.

Esperamos contar con la participación de Mabel Marijuan el año que viene, para que nos haga un balance del primer año de vida de la LORE.

# *Aurretiazko Borondateen Dokumentua, Zainketa Aringarriak eta Eutanasia*

*Apirilaren 28an, Joseba Salgado eta Enrique Alamillo Osakidetzako medikuen eskutik,* ***aurretiazko borondateen dokumentua*** *zer den eta nola egiten den jakin ahal izan genuen. Dokumentu pertsonal bat, bizitzaren amaierako etapan kontuan hartu beharreko osasunari eta zaintzari buruzko balioak eta lehentasunak jasotzen dituena.*

*Maiatzaren 4an,* ***zainketa aringarriei buruz*** *gehiago jakin ahal izan genuen, hain beharrezkoak eta batzuetan irainduak. Familiako mediku eta zainketa aringarrietan aditua den Mila Arrietaren eskutik, Cecily Saunders eta Elisabeth Kübler-Ross doktoreek medikuntzaren adar honi egindako ekarpenak ezagutu genituen, besteak beste.*

*Egun batzuk geroago, maiatzaren 20an,* ***eutanasiaren inguruko prestakuntza*** *interesgarria izan genuen, Mabel Marijuan EHUko Medikuntzako doktore eta Bioetikako irakaslearen eskutik. Marijuanek 2021eko Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE) onartu aurreko legegintza-prozesua landu zuen, eta ibilbide bat egin zuen pazienteek bizitzaren amaieran dituzten eskubideetan eta medikuntzako profesionalek etapa horretan dituzten pazienteekiko betebeharretan. Era berean, azaldu zuen, Aurretiazko Borondateen Agiriari (ABA) buruzko aurreko saio batean Joseba Salgado eta Enrique Alamillo lankideek zehatz-mehatz azaldu zuten bezala, gure borondatea nola erregistratu libreki, adierazi ezin ditugun etorkizuneko egoeretarako.*

*Datorren urtean Mabel Marijuan berriz ere gure artean izatea espero dugu, LOREren lehen urtearen balantzea egin diezagun.*








Kutxa Fundazioa vuelve a confiar en Nagusilan financiando el desarrollo de la línea de **formación sobre nuevas tecnologías.** Así, y respetando todas las medidas sanitarias, Nagusilan ha comenzado a llevar a cabo talleres presenciales sobre nuevas tecnologías en distintas delegaciones. En las citadas formaciones se profundiza en el manejo de plataformas y aplicaciones como Zoom o Whatsapp. El objetivo es que nuestro voluntariado adquiera las competencias necesarias en las denominadas TIC (Tecnologías de la Información y Comunicaciones), con el fin de diversificar la actividad voluntaria y aumentar su participación en los diferentes espacios de la asociación. De esta manera, lograremos estar más informados, formados y democratizar la toma de decisiones. Además, aprender a comunicarse digitalmente se ha convertido en una necesidad, entre otras cuestiones, para realizar gestiones y trámites online del día a día.

*Kutxa Fundazioak Nagusilanengan konfiantza du berriz ere,* ***teknologia berriei buruzko prestakuntza-lerroaren garapena*** *finantzatuz. Hala, eta osasun-neurri guztiak errespetatuz, Nagusilan teknologia berriei buruzko aurrez aurreko tailerrak egiten hasi da hainbat ordezkaritzatan. Formazio horietan, Zoom edo Whatsapp bezalako plataforma eta aplikazioen erabileran sakontzen da. Helburua da gure boluntarioek IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) deiturikoetan beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzea, jarduera boluntarioa dibertsifikatzeko eta elkartearen espazioetan duten parte-hartzea handitzeko. Horrela, informatuago, prestatuago eta erabakiak demokratizatuago egotea lortuko dugu. Gainera, digitalki komunikatzen ikastea eguneroko gestioak eta izapideak online egiteko premia bihurtu da, besteak beste.*



# Formaciones sobre nuevas tecnologías

# Teknologia berriei buruzko prestakuntza

Nagusilan cuenta con la incorporación de Iratxe Aguilar, nueva formadora para Nagusilan Ikasten, que es a partir de ahora la encargada de impartir las sesiones presenciales sobre nuevas tecnologías. A lo largo del mes de junio se han llevado a cabo varias sesiones sobre el uso de Zoom. Además de nuestra Junta Directiva, ya son varias las delegaciones que han recibido dicha formación, como Elgoibar, Idiazabal, Tolosa, Legazpi, Bergara y Deba, que han demostrado una capacidad de adaptación y progreso admirables. **¡Romper con la brecha digital está en vuestras manos! ¡Os animamos a participar!**



Iratxe Aguilar ►



*Nagusilanek Iratxe Aguilar izango du laguntzaile, Nagusilan Ikasten-erako prestatzaile berria, eta, hemendik aurrera, bera arduratuko da teknologia berriei buruzko zuzeneko saioak emateaz. Ekainean zehar Zoomen erabilerari buruzko hainbat saio egin dira. Gure Zuzendaritza Batzordeaz gain, dagoeneko hainbat delegaziok jaso dute prestakuntza hori, hala nola Elgoibarrek, Idiazabalek, Tolosak, Legazpik, Bergarak eta Debak, eta erakutsi dute egokitzeko eta aurrera egiteko gaitasun miresgarria dutela.* ***Arrakala digitala haustea zuen esku dago! Parte hartzera animatzen zaituztegu!***

# Grabación del documental para celebrar el 25 aniversario de Nagusilan

Nagusilan ha cumplido 25 años y ha querido recoger la esencia de la asociación en un documento audiovisual en el que podremos conocer cómo surgió la asociación, la labor que desempeña y lo que significa para las personas que la integran. En definitiva, un reconocimiento a la actividad de estas personas voluntarias de ayer y de hoy, que, de manera desinteresada, han contribuido y contribuyen a que Nagusilan siga viva y crezca en su objetivo de acompañar a todas aquellas personas mayores que lo necesitan. El pasado mes de mayo realizamos las grabaciones en el parque de Cristina Enea de Donostia, donde pudimos asistir a encuentros entrañables y recoger testimonios interesantes y emotivos. **¡Aquí podéis ver unas fotos del making of!**

# Nagusilanen 25. urteurrena ospatzeko dokumentalaren grabazioa

*Nagusilanek 25 urte bete ditu, eta elkartearen funtsa ikus-entzunezko dokumentu batean jaso nahi izan du. Bertan, elkartea nola sortu zen, zer lan egiten duen eta elkartea osatzen duten pertsonentzat zer esan nahi duen jakin ahal izango dugu. Azken batean, atzoko eta gaurko boluntarioen jarduera aitortu nahi dugu; izan ere, modu desinteresatuan lagundu dute eta laguntzen dute Nagusilanek bizirik jarrai dezan eta behar duten adineko pertsona guztiei laguntzeko helburuan gora egin dezan. Joan den maiatzean grabaketak egin genituen Donostiako Cristina Enea parkean, eta testigantza interesgarri eta hunkigarriak jaso ahal izan genituen.* ***Hemen ikus ditzakezue making of-eko argazki batzuk!***





Miguel Zubimendi (Zumaia), Juantxo Larrañaga (Zarautz) y Jesus Mari Guerra (Hondarribia) charlan con Mika García (Legazpi) y Encarni Baztán (Lasarte-Oria)



Patxi Plazaola (Beasain) y Junkal Aranburu (Irun) preparándose para la grabación



Consuelo Cid y Begoña Arrizabalaga (Donostia) nos hablan de la participación del voluntariado



José Luis Elosua e Ignacio Arbide, reencuentro de antiguos compañeros

# 8M

Mujeres voluntarias de Legazpi y Lasarte se sumaron a las reivindicaciones del 8 de marzo que se llevaron a cabo en sus localidades. No olvidemos que el 70% de nuestro voluntariado lo integran mujeres mayores de 65 años, mujeres activas, que siguen formándose y trabajando por la transformación social, **¡reivindicando los derechos y la valía de las personas mayores!**

*Nagusilaneko Legazpiko eta Lasarteko emakume boluntarioek martxoaren 8ko aldarrikapenekin egin zuten bat beren herrietan. Ez dezagun ahaztu gure boluntariotzaren %70a 65 urtetik gorako emakumeek osatzen dutela, etengabeko formakuntza jasotzen dutenak eta eraldaketa sozialaren alde lan egiten dutenak,* ***adineko pertsonen eskubideak eta balioa aldarrikatuz!***










## ELGOIBAR



euskadi lagunkoia Sustraietatik

Nagusilan se ha sumado a la campaña "Establecimiento Amigable", impulsada por el Ayuntamiento de Elgoibar, con el fin de fomentar la sociabilidad hacia las personas mayores en el comercio y la hostelería. La iniciativa se engloba en el programa Euskadi Lagunkoia-Amigable, que tiene como objetivo aprovechar el potencial de las personas mayores y convertirlas en protagonistas para la generación de bienestar en la vida ciudadana de los municipios.

*Nagusilanek bat egin du Elgoibarko Udalak bultzatutako "Establezimendu Lagunkoia" kanpainarekin, merkataritzan eta ostalaritzan adinekoen soziabilitatea sustatzeko. Ekimena Euskadi Lagunkoia programaren barruan dago. Programa horren helburua da adinekoen potentziala aprobetxatzea eta protagonista bihurtzea udalerrietako herritarren bizitzan ongizatea sortzeko.*



ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO



Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

## IRUN

En colaboración con el Ayuntamiento de Irun, voluntarios y voluntarias de Nagusilan Irun llevaron a cabo el reparto de alimentos a 700 familias, ofreciendo ayuda a 1906 adultos y 40 lactantes.

*Irungo Udalarekin lankidetzan, Nagusilan Iruneko boluntarioek elikagaiak banatu zizkieten 700 familiari, eta laguntza eskaini zieten 1906 helduri eta 40 bularreko umeri.*





## Lasarte-Oria

Nuestras compañeras de Lasarte se mostraban encantadas de poder retomar los acompañamientos a residentes, y trasladar su calor y afecto a las personas mayores de la Residencia Atsobakar. **¡Momentos que valen oro para las personas que han pasado tanto tiempo sin contacto!**

*Lasarteko gure boluntarioak pozik agertzen ziren egoiliarren alboan berriz egoteaz eta Atsobakar Egoitzako adinekoei berotasuna eta maitasuna helarazteaz.* ***Kontakturik gabe hainbeste denbora eman duten pertsonentzat urrea balio duten uneak dira.***



## Estella-Lizarra

El pasado mes de marzo, y coincidiendo con la llegada de la primavera, compañeras y compañeros de Estella-Lizarra celebraron la primera salida de este 2021 con residentes de San Jerónimo.

*Joan den martxoan, udaberriaren etorrerarekin, Nagusilan Lizarrako boluntarioek 2021eko lehen irteera ospatu zuten San Jerónimo Erresidentziako egoiliarrekin.*

## Legazpi

A los voluntarios de Legazpi se les ocurrió ofrecer una sesión de canto a través de Zoom a los residentes de Santikutz. Esta vez sólo actuó una persona como cantante, pero ¡la próxima vez será un dueto! El voluntariado sigue activo en busca nuevas vías para animar a los residentes.

*Legazpiko boluntarioei Santikutzeko egoiliarrei Zoom bidez kantu saio bat eskaintzea otu zitzaien. Pertsona bakarra aritu zen abeslari gisa, baina hurrengo batean bikotea izango da! Boluntariotza egoiliarrak animatzeko bide berrien bila dabil, etengabe!*





El pasado 2 de junio Roberto y José Inazio ofrecieron en la residencia Santikutz de Legazpi la primera sesión que impartían desde febrero de 2020. **¡Fue una alegría tremenda la reanudación de las sesiones de animación, tanto para residentes como para voluntarios!**

*Joan den ekainaren 2an Roberto eta Jose Inaziok 2020ko otsailetik hona ematen zuten lehen saioa eskaini zuten Legazpiko Santikutz egoitzan.* ***Izugarrizko poza izan zen animazio saioak berrekitea, bai egoiliarrentzat bai boluntarioentzat!***

## Zarautz

Durante los meses de julio y agosto dos voluntarias de Zarautz ofrecerán colaboración en los paseos que promueve el Garagune de la localidad.

Garagune

*Oraingoz uztaila eta abuztuan zehar Zarauzko bi boluntariak herriko Garagunetik sustatzen diren paseotxoetan kolaborazioa eskainiko dute astelehen goizetan.*




## *Participamos en la elaboración del Pacto Pro Data Gipuzkoa Ituna, proyecto que busca promover un uso socialmente responsable de los datos*

Nagusilan ha participado en la elaboración del Pacto Pro Data Gipuzkoa Ituna, un proyecto coordinado por Txetxu Ausin, investigador del CSIC y de Globernance y Alberto Sotomayor de Kutxa Fundazioa, que nace a raíz del actual cambio económico y social basado en la digitalización y que tiene como combustible primordial los datos. El pacto busca promover un uso socialmente responsable de los datos, que genere confianza social y que esté centrado en las personas, basado en tres sólidos principios éticos:

- Seguridad y protección, garantizando la privacidad.
- Promoción de la inclusión, la equidad y la transparencia.
- Protección del medio ambiente y de las generaciones futuras.

## *Pro Data Gipuzkoa Itunaren prestakuntzan parte hartu dugu, datuen erabilera sozialki arduratsua sustatu nahi duen proiektuan*

*Nagusilanek Pro Data Gipuzkoa Itunaren prestakuntzan hartu du parte. Proiektu hori Txetxu Ausin CSICeko eta Globernanceko ikertzaileak eta Kutxa Fundazioko Alberto Sotomayorrek koordinatu dute. Digitalizazioan oinarritutako egungo aldaketa ekonomiko eta sozialaren ondorioz sortu da, eta erregai nagusia datuak dira. Itunak datuen erabilera sozialki arduratsua sustatu nahi du, konfiantza soziala sortuko duena eta pertsonengan zentratuko dena, hiru printzipio etiko sendotan oinarrituta:*

- *Segurtasuna eta babesa, pribatutasuna bermatuta.*
- *Inklusioa, ekitatea eta gardentasuna sustatzea.*
- *Ingurumena eta etorkizuneko belaunaldiak babestea.*

## *Nagusilan, presente en el VI Congreso de Voluntariado Mayores Telefónica*

Nagusilan participó en el VI Congreso de Voluntariado Mayores Telefónica celebrado el pasado mes de marzo, bajo el lema **"Juntos, conectados @vanzamos"**. Nuestro presidente, Joserra Ecenarro, dio a conocer Nagusilan y sus actividades, en unas jornadas en las que también se recogieron testimonios de distintas entidades relacionadas con el voluntariado. Asimismo, el Congreso contó con la presencia de CEOMA e Imserso, entre otros.



## *Nagusilan, Telefónica Boluntario Nagusien VI. Kongresuan*

*Nagusilanek Telefónica Boluntariotza Nagusien VI. Kongresuan parte hartu zuen joan den martxoan, **"Juntos, conectados@vanzamos"** lelopean. Gure presidenteak, Joserra Ecenarrok, Nagusilan eta bere jardueren berri eman zuen, eta jardunaldi horietan boluntariotzarekin zerikusia duten hainbat erakunderen testigantzak ere jaso ziren. Halaber, kongresuan CEOMA eta Imserso izan ziren, besteak beste.*




# Nace Euskadiko Adinekoen Batzordea

## *La comisión tiene como objetivo diseñar políticas dirigidas a las personas mayores*

El pasado 19 de mayo se presentó en Bilbao Euskadiko Adinekoen Batzordea, la comisión participante de la Mesa de Diálogo Civil de Euskadi dedicada a la construcción de las políticas públicas dirigidas a personas mayores. "Una comisión que va a dar voz a las asociaciones que representan a las personas mayores para diseñar, desde la base, políticas que les afectan".

Nagusilan es una de las asociaciones que componen esta comisión, que consta de 10 miembros. Dos representantes de Euskofederpen, que ostentarán la Presidencia (Santi Larburu e Inma Sánchez), de Lares y de otras asociaciones miembros (Agijupens, Nagusiak, Las Cuatro Torres, Helduak Adi y Secot) así como de la Dirección de Servicios Sociales del Gobierno Vasco.

# Euskadiko Adinekoen Batzordea sortu da

## *Adinekoei zuzendutako politikak lantzea du helburu*

*Joan den maiatzaren 19an Euskadiko Adinekoen Batzordea aurkeztu zen Bilbon. Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko parte den batzorde honek adinekoei zuzendutako politikak landuko ditu. "Batzorde honek adinekoak ordezkatzen dituzten elkarteei ahotsa emango die, oinarritik abiatuta haiengan eragina duten politikak diseinatzeko".*

*Batzordea osatzen duen elkarteetako bat da Nagusilan, eta guztira 10 kide bilduko ditu. Euskofederpeneko bi ordezkari, hauek batzordeko lehendakariak izango dira (Santi Larburu eta Inma Sánchez), Lares elkarteko eta kide diren gainerako elkarte bakoitzeko ordezkariak (Agijupens, Nagusiak, Las Cuatro Torres, Helduak Adi eta Secot) eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako kideak.*



# Reunión entre “Hilo de Plata” y la Federación de Asociaciones de Viudas de Euskadi

Nagusilan Araba y miembros de nuestro proyecto “Hilo de Plata” se reunieron en abril con Maite Bilbao, Presidenta de la Federación de Asociaciones de Viudas de Euskadi y de la Confederación Estatal de Federaciones y Asociaciones de Viudas. El objetivo no es otro que iniciar posibles líneas de trabajo conjuntas y abordar la situación de soledad no deseada que muchas mujeres viudas sufren.

# “Zilarrezko Haria” eta Euskadiko Alargunen Elkarteen Federazioaren arteko bilera

*Nagusilan Araba eta “Zilarrezko Haria” gure proiektuaren kide batzuk Maite Bilbao Euskadiko Alargunen Elkarteen Federazioko eta Alargunen Federazio eta Elkarteen Estatuko Konfederazioko presidentearekin bildu ziren apirilean, elkarlana abiarazi eta emakume alargun askok pairatzen duten nahi gabeko bakardade-egoerari ekiteko asmoz.*

## Nuestra compañera Miryam Lopez dio a conocer Nagusilan y el “Hilo de Plata” dentro del programa de actividades de Goienagusi

Nuestra compañera Miryam Lopez Ansorena participó en la programación de la asociación Goienagusi de Debagoiena para reflexionar sobre la soledad. Tomando como eje la jubilación activa y solidaria, informó de la actividad de Nagusilan a los más de 70 socios que acudieron a Arrasate. Asimismo, dio a conocer el servicio telefónico gratuito “Hilo de Plata” para acompañar a personas mayores.






## Gure lankide Miryam Lopezek Nagusilan eta “Zilarrezko Haria” ezagutzera eman zituen Goienagusiren egitarauaren barruan

*Miryam Lopez Ansorena gure lankidea Goienagusi Debagoienako elkartean izan zen bakardadearen inguruan hausnartzeko. Erretiro aktibo eta solidarioa ardatz, Nagusilanen jardueraren berri eman zien Arrasatera bertaratu ziren 70etik gora bazkideei. Halaber, bakardade egoeran dauden adinekoen alboan egoteko “Zilarrezko Haria” doako telefono bidezko akonpainamendu zerbitzua ezagutzera eman zuen.*

# En marcha la nueva y reforzada delegación de Nagusilan Vitoria-Gasteiz

# *Abian da Gasteizko Nagusilanen ordezkaritza berri eta indartua*

Dentro de su estrategia Proyecto País, Nagusilan continúa ampliando su presencia en territorio alavés. Hace algunos meses el grupo de voluntariado de Amurrio iniciaba su andadura, y esta vez, reunidos con parte del voluntariado de Araba, hemos creado la nueva y reforzada delegación de Nagusilan Vitoria-Gasteiz. Entre los primeros pasos a dar, se está actualizando el convenio con la Diputación Foral de Álava, y Nagusilan está participando en la estrategia "Araba a punto", iniciativa puesta en marcha por la Diputación Foral de Álava para impulsar una estrategia de construcción colectiva para combatir la soledad no deseada que sufren muchas personas mayores.

*Proyecto País estrategiaren barruan, Nagusilanek Arabako lurraldean duen presentzia handitzen jarraitzen du. Duela hilabete batzuk hasi zen Amurrioko boluntarioen taldea, eta oraingoan, Arabako boluntario talde batekin bilduta, Gasteizko Nagusilanen ordezkaritza berri eta indartua sortu dugu. Lehen urratsen artean, Arabako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmena eguneratzen ari da, eta Nagusilan "Araba a punto" estrategian parte hartzen ari da. Arabako Foru Aldundiak abian jarritako ekimena da, adineko pertsona askok pairatzen duten nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eraikuntza kolektiboko estrategia bat bultzatzeko.*





**Contamos con la incorporación de un nuevo compañero, Josu Cantero, que será el encargado de dinamizar la delegación y ofrecer apoyo técnico a todo el voluntariado de Araba.**

***Lankide berri bat dugu, Josu Cantero, ordezkaritza dinamizatzeaz eta Arabako boluntarioei laguntza teknikoa emateaz arduratuko dena.***





# Se reactiva la actividad del grupo de acompañamiento en domicilios de Donostia

# Donostiako etxebizitzetan laguntza eskaintzen duen taldearen jarduera berraktibatu da

Nagusilan sigue estando presente en aquellos hogares donde se encuentran, por distintos motivos, personas mayores viviendo situaciones de soledad no deseada. El voluntariado de Nagusilan dedica parte de su tiempo a acompañar a estas personas, realizando aquellas actividades que puedan ser apetecibles para ambas partes, como charlar, escuchar activamente, realizar pequeños paseos, tomar algo en algún establecimiento cercano, leer, ver la televisión, escuchar la radio, jugar a cartas o a juegos de mesa o realizar manualidades. En definitiva, actividades que podrían realizarse con personas amigas.

En estos momentos el proyecto en Donostia cuenta con más de 10 personas voluntarias y otras tantas personas usuarias a las que se hacen los acompañamientos. Una vez el avance del COVID19 se ralentiza y la vacunación va aumentando, van iniciándose nuevas demandas

*Nagusilanek aurrera jarraitzen du hainbat arrazoirengatik nahi gabeko bakardade-egoeretan bizi diren adineko pertsonak dauden etxeetan laguntza eskaniz. Nagusilaneko boluntarioek beren denboraren zati bat pertsona horiei laguntzen ematen dute, eta bi aldeentzat gustagarriak izan daitezkeen jarduerak egiten dituzte: hitz egitea, aktiboki entzutea, ibilaldi txikiak egitea, hurbileko establezimenduren batean zerbait hartzea, irakurtzea, telebista ikustea, irratia entzutea, kartetan edo mahai-jokoetan jolastea edo eskulanak egitea. Lagunekin egin daitezkeen jarduerak, azken batean.*

*Une honetan, Donostian proiektuak 10 boluntario baino gehiago ditu, eta beste horrenbeste erabiltzaile, laguntza emateko. COVID19a moteldu eta txertaketa handituz doan heinean, laguntza-eskaera berriak jaso ditugu; ikusiko dugu zer uda eta ikasturte hasiera di-*

de acompañamiento; veremos qué verano e inicio de curso tenemos. ¡Muchísimas gracias a las personas que desarrolláis esta actividad!

A comienzos de 2021 la coordinación del proyecto en Donostia, desde el equipo técnico, deja de estar en manos de Maria Odriozola, para pasar a manos de Miryam Lopez, trabajadora social. Se puede contactar con ella en **domicilios@nagusilan.org** y en el **943 475 021**.

*tugun. Eskerrik asko jarduera hau egiten duzuenoi!*

*2021. urtearen hasieran, Donostiako proiektuaren koordinazioa, talde teknikotik, Maria Odriozolaren esku egoteari utzi eta Miryam Lopez gizarte-langilearen esku geratu zen. Donostian egitasmo honetan parte hartzeko asmorik baduzu, harremanetan jar zaitezke hemen: **domicilios@nagusilan.org** eta **943 475 021**.*



## CAROLINA BAILÉN

Voluntaria de acompañamiento en domicilios en Donostia

*Donostiako etxebizitzetan laguntzeko boluntarioa*



“Desde 2018 acompaño a Mari Carmen, una vez a la semana. Mi experiencia me dice que proponerle planes alternativos a su día a día le enriquece enormemente. En ocasiones son pequeñas excursiones de una mañana, en las que visitamos lugares a los que hacía años que no acudía, y le hace mucha ilusión. En este tiempo he descubierto que se crean un clima y unas relaciones interpersonales muy importantes, que calan hondo, relaciones muy generosas, sin esperar nada a cambio.”

“*2018tik Mari Carmenen alboan egoten naiz, astean behin. Nire esperientziak dioenez, bere egunerokotasunetik harago plan alternatiboak proposatzeak izugarri aberasten du. Eguneko txangoak, esaterako, urteetan bisitatu ez dituen lekuetara, sekulako ilusioa egiten dio. Denbora honetan konturatu naiz pertsonen arteko giroa eta harremanak oso garrantzitsuak direla, harreman oso eskuzabalak sortzen direla, trukean ezer espero izan gabe.*”

# Nagusilan participa en la elaboración de la estrategia “Hariak” de la Diputación Foral de Gipuzkoa para combatir la soledad

“Hariak” es la estrategia que se está desarrollando desde la Diputación Foral de Gipuzkoa para hacer frente a las soledades no deseadas. Su objetivo es ayudar a construir una Gipuzkoa y una Euskadi donde todas las personas tengan más capacidades y recursos ante estas situaciones, consiguiendo así la capacidad para elegirlas, hacerlas más agradables, darles la vuelta o evitarlas.

En la elaboración de esta estrategia se está contando con diferentes agentes significativos del territorio, entre ellos, Nagusilan. El voluntariado de la asociación participa en las reuniones y redes que se están organizando por comarcas en este proceso participativo.

# Gipuzkoako Foru Aldundiak bakardadeari aurre egiteko abiatu duen “Hariak” estrategiaren lanketan parte hartu du Nagusilanek

*Bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldunditik martxan jarri nahi duten estrategia da “Hariak”. Bere helburua da nahi gabeko bakardade egoeren aurrean pertsona guztiek gaitasun eta baliabide gehiago dituzten Gipuzkoa eta Euskadi eraikitzen laguntzea, horrela gaitasuna lortuz horiek aukeratzeko, gustagarriagoak egiteko, egoerei buelta emateko edo saihesteko.*

*Estrategia honen lanketan, lurraldeko hainbat eragile esanguratsurekin kontatu nahi da, horien artean, Nagusilan. Prozesu parte-hartzaile honetan eskualdeka antolatzen ari diren bilera eta sareen parte izango da elkarteko boluntariotza.*



**DESCARGA LA REVISTA DESDE LA WEB**

***DESKARGATU ALDIZKARIA WEBGUNETIK***

Puedes leer y descargar la revista de Nagusilan en nuestra web **https://nagusilan.org/revista-nagusilan/**

*Nagusilanen aldizkaria irakurri eta deskargatu dezakezu webgunean* ***https://nagusilan.org/eu/nagusilan-aldizkaria/***